

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Lizitazioa zuzenbide publikoko zergen eta beste diru-sarrera batzuen nahitaezko diru-bilketan laguntzeko zerbitzu teknikoaren kontratatzea**

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko otsailaren 23 egunean hartutako erabakiaz, zuzenbide publikoko zergen eta beste diru-sarrera batzuen nahitaezko diru-bilketan laguntzeko zerbitzu teknikoaren kontratatzea espedientearen onartu da.

1. Entitate esleitzaila:

- a) Erakundea: Audio Udala.
- b) Espedientearen izapidetzeko bulegoa: Ogasun eta Ondare Arloa.
- c) Espediente-zenbakia: H17-128.

2. Kontratuaren helburua: zuzenbide publikoko zergen eta beste diru-sarrera batzuen nahitaezko diru-bilketan laguntzeko zerbitzu teknikoaren.

3. Prozedura:

- a) Izapideak: ohikoak.
- b) Prozedura: irekia.
- c) Esleitzeko hainbat irizpide.

4. Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: ez da finkatu. Kontratuaren prezioa esleipendunak egindako lanen arabera eta egindako kudeaketarik eta zerbitzuetatik eragindako emaitza zehatzen arabera sortuko da, baldintzen pleguaren 4. klausulan zehaztutakoaren arabera.

5. Burutzapen urteak:

- a) Burutzapen epea: zerbitzua 2018ko ekitaldian hasiko da, zerbitzua esleitzeko kontratua izenpetzen den egunetik 2020ko abenduaren 31ra arte, biak barne.
- b) Luzapena: kontratu honetarako ez da luzapenik aurreikusita.

6. Bermeak:

- a) Behin-behinekoa: ez da aurkeztu behar.
- b) Behin-betikoa: 8.625,00 euro.

7. Espedientearen aztertzea eta informazioa jasotzea: Audio Udala, Ogasun eta Ondare Arloa, Herriko Plaza, z/g, bigarren solairua, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara, 944 034 800/826 telefonoa; iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliordunetik hasita, proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

8. Dokumentazioa eskuratzea: aurreko atalean adierazitako epe berean, Audio Udalaren [www.laudio.eus](http://www.laudio.eus) webguneko kontratatzailearen profilean.

9. Enpresen sailkapena: ez da behar.

10. Proposamenak aurkezpena:

a) Aurkezteko epea: egutegiko hamabost (15) egun, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Azken eguna zapatua edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliordunera aldatuko litzateke.

b) Postaz bidaltzea: indarrean dagoen urriaren 12ko, 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez araututako Herri Administrazioetako Kontratueta Araudiko 80.4 artikuluan zehaztutako baldintzetan, SPKLTBren aurka egiten ez duen neurrian.

c) Aurkeztu behar den dokumentazioa: baldintza pleguan adierazita dagoena.

d) Eskaintzak aurkezteko lekua: udaletxeko erregistro orokorrean, Herriko Plaza z/g, 01400 posta kodea, Audio (Araba), eskaintzak aurkeztu ahal izateko epearen azken eguneko 13:00ak arte.

Lizitatuzaileek 21,00 euro ordaindu beharko dituzte, zerbitzu publikoa eman eta aktibitateak egiteagatiko rasak arautzen dituen 7. ordenantza fiskaleko eranskineko IX. atalean (dokumentuak emateko zerbitzua) xedatutakoaren arabera.

Kontratazio Mahiak atzera botako du sarrera erregistroan aurkeztutako dokumentazioa, baldin eta eskaintzak aurkeztu baina ordainketa hori egin ez bada.

11. Proposamenak zabaltea:

“A” gutun-azala: proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo asteartean edo ostiralean, goizeko 10:00etatik aurrera. Proposamenak udaletxeko lehenengo solairuko bilkura gelan irekiko dira, barne-izaera duen ekitaldi pribatuan.

“B” gutun-azala eta “C” gutun-azala: deialdia udaletxearen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

12. Proposamen ereduak: lizitatuzaileek baldintzen pleguko 2., 3. eta 4. eranskinetan aurreikusitako proposamen-ereduan aurkeztu beharko dute eskaintza, baldintzen pleguan bertan adierazten diren dokumentuekin batera.

13. Iragarpenen gastuak: lizitazioa iragartzeko gastuak esleipendunak ordaindu behar ditu.

14. Kontratazio-mahaia osatzen duten pertsonak: kontratazio-organoaren erabakiz izendatutakoak.

Audio, 2018ko otsailaren 23a

*Alkate-udalburua*

*JON IÑAKI URKIXO ORUETA*